

Erreminta digitalen bilduma

Sblendid proiektuaren baitan erreminta digitalen bilduma bat osatu zen. Teknologien eremuan aukera ugari zegoenez, hautaketarako irizpideak azalaraziko dira artikuluan baita hautatuen sailkapena egitekoak. Halaber, *Genial.ly* esparruan egindako bilduma bera eskuratzeko esteka dago.

Gako-hitzak

erreminta digitalak, IKT, jardun biko eredua, *Sblendid*, teknologia

**Luís Antonio
Xuncal
Pereira**

Escola Oficial de Idiomas
Santiago de Compostela

luisxuncal@edu.xunta.gal

1. SARRERA

Sblendid proiektuan (Fernández González et al., 2021) parte hartu zuten irakasleek tresna erabilgarrien bilduma bat egiten lagundu zuten, ikastaroak sortu zituzten irakasleek materialak egin zituzten eta jardun biko ereduko ikasleek erabil zituzten. Izan ere, Moodle ikaskuntza-plataforma bat erabiltzen duen urrutiko irakaskuntza-eredua denez, ezinbestekotzat jo zen irakasleei "tresna-kutxa" bat ematea; hau da, zenbait baliabide eskura jartzea jardun biko irakaskuntzaren erronkari heltzeko.

Jarraian, tresnak hautatzeko kontuan hartu ziren irizpideak azalduko dira, baita horiek aurkezteko aukeratu zen formatu mota eta sailkapena nola egin zen ere.

2. TRESNAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

Hasieratik, eta eskura zeuden baliabideen kopuru izugarria ikusita, honako irizpide hauek hartu ziren kontuan tresnak hautatzeko:

- **Erraztasuna eta erabilgarritasuna.** Funtsezkotzat jo zen erabiltzeko erraza izatea, bai irakasleentzat, bai ikasleentzat. Izan ere, jakin bazekiten tresna horiek erabiltzeko zailtasunak motibazioa galtzea eragiten duela mota horretako tresnen erabiltzaileentzat, eta kontuan hartu zen ez irakasleek ez ikasleek ez luketela denborarik galdu behar baliabidea erabiltzen ikasteko.
- **Doakotasuna.** Tresna askoren doako bertsioen eta ordainpeko bertsioen arteko desberdintasunez jabetuta, doako bertsioak hautatzea lehenetsi zen –tresnak erabiltzea eta materialak sortzea ahalbidetzen zutenak–, ordainpeko *premium* bertsioa eskuratu beharrik gabe.
- **Ahalmena.** Tresnek zuten ahalmena aztertu zen, eta baliabide askotarikoak eta heterogeneoak sortzea ahalbidetzen zutenak hautatu ziren, ikasleek eta irakasleek IKTEkiko gehiegizko esposizioa izan ez zezaten.

- **Ikaskuntza-mota.** Honako hauek ahalbidetzeko tresnak hautatzea erabaki zen: ikasleen ikaskuntza autonomoa bultzatzea, irakasleen eta ikasleen artean hezkuntza-laguntza sortzea eta lankidetzako ikaskuntza kooperatiboa erraztea.
- **Moodle plataforman integratzeko erraztasuna.** Moodle gaur egun irakaskuntza birtualerako erabiltzen ari den hezkuntza-plataforma instituzionala denez, plataforman erraz integra zitezkeen baliabideak hautatzeko ahalegina egin zen.

3. TRESNEN BILDUMA AURKEZTEKO FORMATUA HAUTATZEA

Baliabideen bilduma partekatze formatua aukeratzekoan, **Genial.ly** eduki interaktiboak sortzeko softwarea erabiltzea erabaki zen, honako arrazoi hauengatik:

- Etorkizunean eguneratzeak edo handitzeak egiteko eroso den softwarea da.
- Baliabideak hainbat formatutan sar daitezke (testua, audioa, bideoa, etab.), efektu interaktiboak eta animazioak izan ditzaketenak; horrela, baliabideen deskribapen laburra egin eta bideotutorialak partekatu ahal izan ziren.
- Zalantzarik gabe, oso erraza da software horrekin lan egitea, eta oso intuitiboa da.

Jarraian, tresna digitalen aukeraketaren ondorengo azken itxuraren irudi bat dago.

1. irudia



Tresnen bilduma esteka honetan bistaratu daiteke: <https://view.genial.ly/60eeb0cbffa1c00db69f13ae/presentation-copia-herramientas-digitales>

4. TRESNEN SAILKAPENA

Baliabideen sailkapena errazteko, egokitutako funtzionaltasunaren arabera etiketa batzuk ezartzea eta baliabide bakoitza erreseina labur baten eta tutoretza-bideo baten bidez deskribatzea, tresna bakoitzaren erabilgarritasuna azaltzeko.

Bost etiketa sortzea erabaki zen: laguntza, autonomia, ebaluazioa, plataforma eta beste tresna batzuk. Aukeraketa hori sortutako prestakuntza-ibilbidearen zutabe tematikoek zehaztu zuten, zeina alderdi horietako bakoitzaren inguruan antolatutako lau kurtsok osatzen baitute (Fernández González et al., 2021).

- **Laguntza.** Etiketa horren barruan, ikasprozesuan ikasleei laguntzeko baliabideak daude: mezularitza, bideo-grabazioa, horma-irudiak sortzea eta bideoak sortzea, besteak beste.

- **Autonomia.** Kategoria horretan hautatu zirenek aukera ematen die irakasleei baliabideak eta edukiak sortzeko ikasleek gero eta autonomia handiagoa izan dezaten ikasprozesuan. Besteak beste, webguneak eta web-orriak sortzeko, blogak diseinatzeko, portfolioak egiteko, aurkezpenak erabiltzeko, baliabide ludioak ekoizteko (gamifikazioa) eta bideoak grabatzeko baliabideak dira.
- **Plataforma.** Ikas-irakas jarduerak sortzea, kudeatzea eta banatzea ahalbidetzen duten tresnak daude.
- **Ebaluazioa.** Ikasleen aurrerapena ebaluatzeko eta autoebaluazioa egiteko aukera ematen duten baliabideak daude (galdetegiak sortzea, errubrikak sortzea eta azterketak sortzea). Tresna horiek aukera eskaintzen dute ikasleei feedbacka emateko eta ikasleek ikasprozesuan zehar zer aurrerapen izan duten ikusteko.
- **Beste tresna batzuk.** Kategoria honetan, etiketa nagusien artean lekurik ez izan arren, ikaskuntza birtualerako beharrezkotzat jo ziren tresnak hautatu ziren: audioa edo bideoa biltegitratzea, podcastak grabatzea, aurkezpenak eta audio-aurkezpenak egitea, mahaigain birtualak erabiltzea, etab.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Bibliografia eta erreferentziak

Fernández González, M. D., Pastoriza, D. eta Eizaguirre Santillán, A. (2021). Proyecto SBLINDID. Hacia una comunidad de aprendizaje en el marco de la modalidad semipresencial. In M. C. Romero García & O. Buzón-García (Ed.), *Innovación e investigación docente en educación: Experiencias prácticas* (702- 720. or.). Dykinson